



ASTEKARI
● ● ● *digitala*

- [Política](#)
 - [Estado](#)
 - [Euskadi](#)
- [Internacional](#)
 - [Actualidad](#)
 - [Conflictos](#)
- [Economía](#)
 - [Estado](#)
 - [Euskadi](#)
 - [Internacional](#)
- [Entrevistas](#)
- [Opinión](#)
- [Comunicados](#)
- [Deportes](#)
- [Sociedad](#)

Sociedad ● ● ●

[volver](#) < >



Opentrad
traducción automática
en código abierto

Eleka enpresak Matxin gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren bertsio hobetua garatu du

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean gaur egin den jendaurreko aurkezpenean Elekako kudeatzaile Inaki Irazabalbeitia, Elhuyar Fundazioko proiektu kudeatzailea Josu Waliño eta IXA taldeko Iñaki Alegria izan dira.

15/12/2009

BILBO - Bost urte pasa dira Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresa Galiziako eta Herralde Katalanetako enpresa eta unibertsitateekin batera Opentrad kode irekiko itzulpen automatikorako plataforma garatzen hasi zenetik (www.opentrad.com), eta orain Opentrad plataformaren parte den Matxin gaztelania-euskararen bertsio hobetua garatu du. Bertan itzulpen automatikoko teknika ezberdinak erabili dira.

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean gaur egin den jendaurreko aurkezpenean Elekako kudeatzaile Inaki Irazabalbeitia, Elhuyar Fundazioko proiektu kudeatzailea Josu Waliño eta IXA taldeko Iñaki Alegria izan dira. Adierazitakoaren arabera, aurrez zegoen gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren bertsioaren eboluzioa da gaur aurkeztu dena.

Matxin kode irekiko aplikazioa da, eta Opentrad plataformaren parte da. Gaur aurkeztu den bertsio berrituan bi ezaugarri nabarmen daitezke. Alde batetik, gaztelaniatik euskararako itzultzailea hobetu da, hau da, gaur aurkeztutakoa 2006an aurkeztu zen prototipoaren bertsio berritua da, eta itzulpenen kalitatean nabarmen hobetu da. Beste alde batetik, euskaratik gaztelaniarako Matxin itzultzailearen lehen prototipoa sortu da. Bi itzultzaileak www.opentrad.com web-orrian erabil daitezke doan.

Itzulpen automatikoaren munduan itzulpenetarako bi metodo erabiltzen dira: erregeletan oinarritutakoa eta estatistikoa. Erregeletan oinarritutako sistemak informazio linguistikoarekin funtzionatzen du, alegia, informazio horren arabera erregeletak sortzen dira. Estatistikoa, aldiz, lehendik egindako itzulpenetan oinarritzen da, eta jakintza hori erabiltzen du hurrengo itzulpenak egiteko garaian. Gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren kasuan bi teknikak garatu eta Matxinen integratu dira. Euskara-gaztelania itzultzailearen kasuan teknika estatistikoak bakarrik erabili dira.

Matxin gaztelania-euskara sistemaren balio erantsi garrantzitsuena da Opentrad kode irekiko sistemaren barruan dagoela. Ondorioz, gaztelania-euskara motorra behin garatu ondoren, komunitatearen esku geratzen da. Horrela, edonork bere beharretara egokitu dezake lizentzia ordaindu beharrik gabe. Elekak egindako garapena eskuragarri dago www.opentrad.com webgunean.

Aurkezpenean esker oneko hitzak izan dituzte Donostiako, Gasteizko eta Arrasateko Udalentzako, IVAPentzako,

Eroskirentzako, EiTBNETentzako eta Aldaketa 16 aldizkariarentzako, beraiek lagatako itzulpen-memoriak oso baliagarriak izan baitira sistema estatistikoaren entrenamendurako.

Ekimen honek Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren, eta Espainiako Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren laguntza izan du, Gaitek eta Profit deialdien bidez, hurrenez hurren.

Diccionario de Idiomas

Descarga gratis el nuevo Babylon.
¡Traduce textos en 1 solo clic!

Anuncios Google

Babylon Traducción Gratis

Nuevo Software de Traducción Gratis
Diccionarios y mas de 50 Idiomas.

Anuncios Google

Últimas noticias de Sociedad



[Sociedad](#)

Los estudios preliminares del proyecto de ampliación del Guggenheim se pres...



[Sociedad](#)

Ordizia (Gipuzkoa) acoge mañana el XII Campeonato de Txistorra de Euskadi



[Sociedad](#)

La Unesco dedica un reportaje de su revista internacional 'Oralidad' a la C...



[Sociedad](#)

Precaución en la AP-68 en Altube, la N-240 en Barazar, la N-1 en etxegarate...